

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETH), 2014KO IRAILA

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak %1,4 gehitu ziren 2014ko irailean

Gaualdiak %7,6 gehitu dira aurreko urteko hil beraren aldean

2014ko irailean, 239.029 bidaiari-sarrera erregistratu ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 3.252 gehiago, %1,4ko gehikuntza, Eustaten datuen arabera. Bidaiari-sarrerak %7,0 gehitu ziren Araban, %3,7 Gipuzkoan; Bizkaian %2,1eko jaitsiera.

Gaualdiak, 2014ko irailean, 495.457, aurreko urtekoan baino 35.115, %7,6, gehiago. Gaualdiek ere bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan: Araban %11,0, Bizkaian %9,3, Gipuzkoan %4,6.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. Iraila 2014

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)			
	2014/09	m/m-12 (%)	2014/09	m/m-12 (%)	2014/09	2013/09	plazaka		gelaka	
							2014/09	p.p.*	2014/09	p.p.*
EUSKAL AE	495.457	7,6	239.029	1,4	2,07	1,95	58,6	4,7	71,5	5,9
Estatukoak	282.454	5,2	137.218	-0,3	2,06	1,95	-	-	-	-
Atzeritarrak	213.003	11,1	101.811	3,7	2,09	1,95	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	68.226	11,0	36.601	7,0	1,86	1,80	50,6	5,3	62,8	6,6
Estatukoak	48.115	15,7	25.291	7,7	1,90	1,77	-	-	-	-
Atzeritarrak	20.111	1,3	11.310	5,4	1,78	1,85	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	48.771	13,8	25.507	12,3	1,91	1,89	51,8	5,8	66,8	7,4
BIZKAIA	233.740	9,3	111.206	-2,1	2,10	1,88	59,3	6,2	73,9	8,0
Estatukoak	129.773	-0,4	63.730	-5,9	2,04	1,92	-	-	-	-
Atzeritarrak	103.967	24,3	47.476	3,5	2,19	1,82	-	-	-	-
Bilbao	151.718	7,5	69.869	-5,9	2,17	1,90	66,4	5,5	81,9	6,5
GIPUZKOA	193.491	4,6	91.222	3,7	2,12	2,10	61,0	2,3	72,0	2,8
Estatukoak	104.566	8,2	48.197	3,8	2,17	2,08	-	-	-	-
Atzeritarrak	88.925	0,7	43.025	3,5	2,07	2,12	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	109.264	3,9	50.998	6,2	2,14	2,19	70,8	1,6	84,6	2,2

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta (ETH)

Estatuko bidaiariak %0,3 gutxitu dira aurreko urteko irailaren aldean eta atzerrikoak %3,7 gehitu. Araban atzeritarrak %5,4 gehitu dira eta estatukoak %7,7. Bizkaian atzeritarrak %3,5 gehitu dira eta estatukoak %5,9 gutxitu. Gipuzkoan atzeritarrak %3,5 gehitu dira eta estatukoak %3,8.


Batez besteko egonaldia, 2,07 egun, aurreko urteko irailean 1,95. Araban batez besteko egonaldia 2013ko iraileko 1,80 egunetik aurtengo 1,86ra luzatu da; Bizkaian 1,88tik 2,10era; Gipuzkoan 2,10etik 2,12ra

Plazakako betetze-maila ehuneko 4,7 puntuz handitu da Euskal AE osoan, 2013ko iraileko %53,9tik aurtengo %58,6ra. Araban ehuneko 5,3 puntuz gehitu da, 2013ko iraileko %45,3tik

aurtengo %50,6ra. Bizkaian ehuneko 6,2 puntuz gehitu da, 2013ko iraileko %53,1etik aurtengo %59,3ra. Gipuzkoan ehuneko 2,3 puntuz gehitu da, 2013ko iraileko %58,7tik aurtengo %61,0ra.

Gelakako betetze-maila ehuneko 5,9 puntuz gehitu da Euskal AE osoan; okupazioa, %71,5. Araban ehuneko 6,6 puntuz gehitu da, %62,8ra; Bizkaian 8,0z, %73,9ra; Gipuzkoan 2,8z, %72,0ra.

Euskal AEko hotel establezimenduen okupazio-mailaren eboluzioa lurralde historikoaren arabera (%)



Iturria: Eustat. Establezimendu turistikoko hartzaileen inkesta THI

Hotel-okupaziorik handienak irailean Donostian (%70,8), Bilbon (%66,4), Arabako Errioxan (%63,0).

Asteko eguna aintzat hartuta, 2014ko irailean okupaziorik handiena (%68,4) aste-bukaeretan; %55,0 lanegunetan, Euskal AEn.

Bizkaian, gelakako betetze-maila Saskibaloiko Munduko Kopan, Bilbon, %80,6

Bizkaian, bidaiari-sarrerak 2014ko Bilboko Saskibaloiko Munduko Kopan, 20.727. Sarrerok 2014ko abuztuaren 29tik irailaren 4ra arte (7 gau). Aldi horretan, 62.504 gaualdi Bizkaia osoan eta gelakako betetze-maila %67,5. Bilbon gelakako betetze-maila, %88,1; plazakakoa, %72,5.

Araban, gelakako betetze-maila Gasteizko FestVal-en, %69,3

Araban, bidaiari-sarrerak 2014ko Gasteizko FestVal-en, 8.327. Sarrerok 2014ko irailaren 1etik 6ra arte (6 gau). Aldi horretan, 15.142 gaualdi Araba osoan, 2013an baino %7,7 gehiago (orduan irailaren 2tik 7ra izan zen). Sarrerak %10,6 gehitu ziren lurralde osoan 2013koaren aldean. Plazakako betetze-maila 2014an, %55,9. Gasteizen 5.809 sarrera eta 10.732 gaualdi; plazakako

betetze-maila %56,8 eta gelakakoa %74,4. Sarrerak %8,3 gehitu ziren eta gaualdiak %5,5 hiriburuan, 2013ko datuen aldean.

Gipuzkoan, gelakako betetze-maila Donostiako Zinemaldian, %74,3

Gipuzkoan, bidaiari-sarrerak 2014ko Donostiako Zinemaldian, 26.559. Sarrerok 2014ko irailaren 19tik 27ra arte (9 gau). Gaualdiak, 58.560 Gipuzkoa osoan; plazakako betetze-maila %61,5. Donostian, 14.239 sarrera eta 33.254 gaualdi; gelakako betetze-maila %88,2 eta plazakakoa %71,5. 2013koaren aldean (orduan irailaren 20-28 artean izan zen, 9 gau) sarrerak Gipuzkoan %0,2 gutxitu dira eta gaualdiak %3,4 gehitu; Donostian sarrerak %5,9 gehitu dira eta gaualdiak %5,0.

Landa-ostatueta sarrerak %24,0 gehitu dira eta gaualdiak %18,8 irailean

Euskal AEko landa-establezimenduetan irailean 31.893 gaualdi erregistratu ziren, aurreko urteko hil beraren aldean %18,8 gehiago. Araban %12,4ko jaitsiera; Bizkaian %39,7ko gehikuntza, Gipuzkoan %17,5ekoa.

Plazakako betetze-maila, %26,8, ehuneko 4,7 puntu gehiago 2013ko irailean baino. Araban ehuneko 0,9 puntu gutxiago, betetze-maila %13,6. Bizkaian betetze-maila %25,3, ehuneko 7,4 puntu gehiago 2013ko irailaren aldean eta Gipuzkoan 5,1 puntu gehiago, %33,1.

Euskal AEko landa-ostatueta 13.063 bidaiari-sarrera erregistratu ziren irailean, %24,0 gehiago aurreko urteko hil beraren aldean. Araban %2,7ko gehikuntza sarreretan, Bizkaian %41,0, Gipuzkoan %22,2.

2.180 atzeritar-sarrera izan genituen, %+34,7 aurreko urtekoen aldean eta sarrera guztien %16,7. Estatuko bidaiarien sarrerak %22,0 gehitu ziren.

Batez besteko egonaldia, 2,44 egun aurtengo irailean, lehengo urtean baino laburragoa.

2. taula.- Euskal AEko landa-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. Iraila 2014

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2014/09	m/m-12 (%)	2014/09	m/m-12 (%)	2014/09	2013/09	2014/09	p.p.*
EUSKAL AE	31.893	18,8	13.063	24,0	2,44	2,55	26,8	4,7
ARABA/ÁLAVA	3.307	-12,4	1.888	2,7	1,75	2,05	13,6	-0,9
BIZKAIA	9.319	39,7	4.103	41,0	2,27	2,29	25,3	7,4
GIPUZKOA	19.267	17,5	7.072	22,2	2,72	2,83	33,1	5,1

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta (ETH)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62

ETH-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

ETH-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestari buruzko datu-bankua